

JARDUKETA FITXA. IREKIBAI PROIEKTUA: Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza.

**JARDUKETA IZENA: Bisoi amerikarra kontrolatzea**

**C11 Bisoi amerikarra kontrolatzea**

**Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:**

'Bidasoa Ibaia' KBE, 'Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka KBE, 'Bertizko Jaurerria' KBE, 'Artikutza' KBE eta 'Belate' KBE.

**LOTURA NATURA 2000ekin**

Ekintza KBEak Kudeatzeko Planen helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:

2.1.2. Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea

2.1.3. Ibai habitatei loturiko dauden intereseko fauna espezie batzuen ezagutza eta kontserbazioa hobetzea.

**KBEko funtsezko elementu onuradunak - REASONS**

Bisoia europarra (*Mustela lutreola*) Batasunaren intereseko espeziea da, eta mehatxu egoera larrian dago toki guztietan; **bisoia europarraren** gaineko mehatxurik handiena da haren populazioa urritu, lekualdatu eta ezabatu dela, bisoi amerikarraren kolonizazioaren ondorioz (Neovison vison). Gaur egun, bisoi europarraren Nafarroako Kantauri aldeko arroetan badira bisoi amerikarrarekiko kontaktuan dauden eremuak.

**JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:**

Nafarroako Kantauri aldeko arroa, Gipuzkoarekin partekatzen ditugun ibaiak (arro horietako udalerrri guztiak)

**Data**

2016 - 2019 (Bisoia amerikarra lau kanpainetan kontrolatzea, udaberrian eta udazkenean)

**Aurrekontua**

100.350 €

**Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)**

**Lanaren deskribapena - HELBURUAK**

Ekintzaren helburua da bisoi amerikarraren (*Neovison vison*) presentzia eragozteko edo murrizteko Nafarroan, Batasunaren intereseko bisoi europarra (*Mustela lutreola*) espezieari kalterik ez eragiteko, mehatxu egoera larrian baitago. Horrez gain, informazioa ere eskuratuko dugu bi espezieek jarduketa eremuan duten banaketaz eta ugaritasunaz.

**Lanaren deskribapena - AURREKARIAK**

Nafarroako Kantauri aldeko ibai arroetan, bisoi amerikarra ager daiteke, Gipuzkoan eta Frantziako hego-mendebaldean (Pirinio Atlantiarreko Departamentuan) dauden populazioetatik etorrira. Izan ere, dagoeneko Bidasoa ibaian, Aritzakunen, Urritzaten, Orabidean eta Luzaide errekan dokumentatu da, bai eta Nafarroako Mediterraneo isurialdeko beste ibai batzuetan ere.

**Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)**

Plataformak ezarriko dira bisoi amerikarra atzemateko, eta gero, tranpak. Kalkuluaren arabera, ibai-tarteetan, 114 km arakatu beharko lirateke, bisoi

amerikarra atzemateko, eta hala bada, ezabatzeko, guztira 114 plataforma jarrita (plataforma bat, km bakoitzeko), betiere honela banatuta:

- Bidasoa ibaia, 33 km; eta ibaiadarrak, 29 km
- Baztan ibaia, 22 km; eta Artesiagako erreka, 8 km
- Urumea ibaia, eta ibaiadarrak, 9 km
- Leizaran ibaia, 5 km
- Araxes ibaia, 8 km

Plataformak lehenik eta behin erabiliko dira bisoi amerikarra atzemateko, eta ondoren, atzematen bada, harrapatzeko. Plataformen diseinuari esker, tranpa plataformaren gainean jarriko da, baina aurrez (jarraipen aldietan) oinatzak erregistratzen badira, eta aldameneko plataformetan ere bai. Harrapatzen diren bisoi amerikarrak metodo odolgabeen bidez hilko dira. Gainerako espezieak harrapaketa lekuetan bertan askatuko dira. Ekintzak datu asko eta asko eraginen ditu; guztiak ere datu-base batean bilduko dira, emaitzak errazago aztertzeko.

### Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA

### JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Emaitza hauek espero dira:

- 114 plataforma finko paratuko dira
- Lau tranpa kanpaina eginen dira, 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan (udaberrian eta udazkenean)
- Bisoi europarra Batasunaren intereseko espeziearen eta bisoi amerikarra espezie exotiko inbaditzailearen egoerari buruzko informazioa eskuratzea.

